

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Lezako hiri antolamendurako plan orokorrari eta ingurumen azterketa estrategikoari

funtsezko aldaketak egin ondoren Lezako hiri antolamendurako plan orokorraren eta ingurumen azterketa estrategikoaren dokumentazioan, jendurrean jartzeko epean aurkeztutako alegazioen ondorioz, udal honen osoko bilkurak, 2022ko ekainaren 8an baliozko bilkuran, erabaki du Lezako hiri antolamendurako plan orokorrari eta dagokion ingurumen azterketa estrategikoari beste hasierako onспен bat ematea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzarri buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 90.3 artikuluan eta Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 12. artikuluan ezarritakoa betez, jendurrean jartzen dira bi agiriak 45 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesa dutenek espedienteak aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta horri buruzko iragarkia lurraldean hedapen handiena duen egunkarian argitaratuko da.

Interesdunek udal bulegoetan eta udal web orrian (www.ayuntamientodeleza.com) dituzte eskuragai espedienteak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzarri buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 85.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eten egiten da edozein onспен, baimen eta lizentzia ematea, bi urtez gehienik ere, xedapen berriek indarreko hirigintza araubidea aldatzea dakarten arloetan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Leza, 2022ko ekainaren 13a

Alkatea

JOSÉ ANTONIO SUSO PÉREZ DE ARENAZA